



2002/02/11ko prentsa-oharra

TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (BMIT)**2001eko laugarren hiruhilekoa**

EUSKAL AE-KO TXIKIZKAKO SEKTOREAREN SALMENTAK %1,8 JAITSI ZIREN 2001EKO LAUGARREN HIRUHILEKOAN

2001. urteko txikizkako salmentek, berriz, % 0,7ko hazkunde metatua izan dute, balio errealetan

Euskal AEko txikizkako merkataritza-sektorearen balantzeak salmenten %0,7ko hazkunde errealarekin amaitu du 2001eko ekitaldia; hazkunde hori urtebete lehenago lortutakoa baino zazpi hamarren txikiagoa da (%1,4). Hazkunde erreal hori %4,3ko tasa nominal batera igotzen da, datuak pezeta unekotan adierazten badira.

Urteko laugarren hiruhileko horretako urte arteko bilakaerak (%-1,8) baieztatzen bide du Euskal AEko txikizkako merkataritzan hirugarren hiruhilekoan hasitako salmenten jaitsiera (%-0,3); izan ere, urteko lehen bi hiruhilekoetan, %3,3ko eta %1,8ko hazkundeak lortu ziren.

URTE ARTEKO HAZKUNDE TASA ERREALAK. EUSKAL AE

URTEA	HIRUHILEKOA	TXIKIZKAKOA	ESPEZIALIZATUA	EZ-ESPEZIALIZ. (AZAL. ERTAIN ETA HANDIAK)
2000	I	3,0	3,4	1,9
	II	0,6	-0,5	3,2
	III	0,7	-0,3	2,8
	IV	1,4	3,3	-2,8
2001	I	3,3	4,4	0,7
	II	1,8	2,2	1,1
	III	-0,3	0,4	-1,8
	IV	-1,8	-2,5	0,0

Iturria: EUSTAT

Azalera ertain eta handietako merkataritza (espezializatua) %5,0 hazi da laugarren hiruhilekoan, balio nominaletan, eta, behin prezioen igoeraren eragina deskontatuz gero, ez dauka aldakuntzarik urte arteko tasan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean (%0,0). 2001. urteari buruzko datuetan, aurreko urtearen aldean, azalera ertain eta handietako salmenten igoera %4,6koa da pezeta unekotan, baina horrek ere ez du izan inolako aldakuntzarik (%0,0), aurreko urtearen aldean, pezeta finkoetan zenbatzen badira.

Txikizkako merkataritza ohikoak (espezializatuak) %0,1 jaitsi ditu salmentak 2001eko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Jaitsiera nominal hori, behin prezioen igoeraren eragina deskontatuz gero, %-2,5 bihurtzen da, balio errealetan. 2001. urteari buruzko gehikuntza metatua %4,1ekoa da txikizkako merkataritza ohikoan, balio unekotan, eta, balio finkoetan gehikuntza %1,0koa da.

Txikizkako merkataritza-sektorean enplegatutako pertsonalak %1,0ko igoera izan du 2001eko laugarren hiruhilekoan, aurreko urtearen aldean. Igoera hori %0,4koa da, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Herrialde historikoka, Bizkaiko eta Gipuzkoako txikizkako merkataritza-sektoreek %1,0 eta %0,8ko urteko hazkunde errealak lortu dituzte, hurrenez hurren; Arabakoak, aldiz, %0,8ko jaitsiera izan du, 2001. urteko guztizko metatuari buruz.

Azalera ertain eta handietako salmentek gehikuntza errealak lortu dituzte Gipuzkoan (%1,0), 2001. urteko guztizko metatuari buruz; Bizkaian, aldiz, jaitsiera txiki bat izan dute (%-0,1), eta Araban beherapen nabarmenagoa jasan dute (%-1,8).

Txikizkako merkataritza ohikoan, Bizkaiak lortu du hazkunde-tasa erreal handiena (%1,5), 2001. urteko guztizkoari buruz; Gipuzkoak ere balio positiboak erdietsi ditu (%0,7); Araban, ordea, jaitsiera txiki bat gertatu da (%-0,3).

Txikizkako merkataritza-sektorean enplegatutako pertsonalari dagokionez, 2001eko laugarren hiruhilekoan, urte arteko gehikuntza bat gertatu da (aurreko urte hiruhileko beraren aldean) Gipuzkoan (%1,9); Bizkaian eta Araban, berriz, jaitsiera txiki batzuk izan dira (%-0,3 eta %-0,4, hurrenez hurren).

Argibide gehiagorako, deitu hona:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.:+34-945 017500 Fax:+34-945 017501 E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta Tel.:+34-945 017505 Fax:+34-945 017501 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	---